

**ALKATETZAREN  
HIRIARTEKO SENIDETZEI BURUZKO ALDI  
BATERAKO UDAL BATZORDE BAT  
SORTZEKO**

**PROPOSAMENA**

**PROPUESTA DE ALCALDÍA PARA LA  
CREACIÓN DE UNA COMISIÓN MUNICIPAL  
NO PERMANENTE SOBRE  
HERMANAMIENTOS**

Donostia sei hiri ditu senide: Daira de Bojador, Saharan; Magurame, Japonian; Plymouth, Inglaterran; Reno, Estatu Batuetan; Trento, Italian; eta Wiesbaden, Alemanian. Hiri arteko sei senidetza horiek 80ko hamarkadan egin ziren ia denak, askotariko helburuetarako eta arrazoirengatik.

Senidetza horiek benetan dituzten eraginak, halaber, desberdinak dira. Kasu batzuetan, senidetzeek elkartrukerako dinamika interesgarriak sortu dituzte gutxi gorabehera iraunkorrik, dela udalen artean, dela beste erakunde batzuen artean (hezkuntza, gazteria, gizarte-arloa, etab.), baina beste batzuetan, elkartruke jarduerek nabarmen behera egin dute.

Kontuan hartuz senidetzak egin eta gero pasatako denbora luzea, baita nola funtzionatu duten ere, Alkatetzaren iritziz, guztiz egokia eta beharrezkoa da senidetza horien ebaluazio bat egitea, multzoan zein banaka horiek aztertz, etorkizunean nola jokatu erabakitzeko.

Bestalde, legealdi honetan, hainbat senidetza proposatu dira, eta oso interesgarriak izan daitezke hirirako, baina Udalak posizio bat finkatu behar du beharrezko jotzen diren informazio elkartruke, topaketa eta abarretan sartu baino lehen.

Edonola ere, Alkatetzaren iritziz, Udal Talde guztiak parte hartu behar dute ebaluazioan erabakirik hartu baino lehen, ikuspuntuak kontrastatu eta partekatzeko eta, hartara, garrantzi instituzionaleko erabakiek, senidetzak diren bezala, adostasun handiena izateko. Horrenbestez, Alkatetzak proposatzen du

Donostia/San Sebastián está hermanada con seis ciudades: la Daira de Bojador, en el Sahara, Marugame, en Japón, Plymouth, en Inglaterra, Reno en Estados Unidos, Trento, en Italia y Wiesbaden, en Alemania. Estos seis hermanamientos se formalizaron, en su práctica totalidad, en la década de los 80, con distintos objetivos, y por diversos motivos.

El resultado efectivo de esos hermanamientos es, también, desigual. En algunos casos los hermanamientos han generado interesantes dinámicas de intercambio más o menos sostenidas en el tiempo, tanto entre los ayuntamientos respectivos como entre otro tipo de entidades (educativas, juveniles, sociales...), pero, en otros casos, las actividades de intercambio han decaído notablemente.

Dado el tiempo que ha transcurrido desde que se formalizaron los hermanamientos y en vista de cómo están funcionando, la Alcaldía considera, más que oportuno, necesario, realizar una evaluación de los hermanamientos, analizándolos, tanto en su conjunto como caso por caso, para poder establecer las líneas de actuación futuras.

Por otra parte, en lo que llevamos de legislatura se nos han planteado diversos hermanamientos que pueden resultar interesantes para la ciudad, sobre los que el Ayuntamiento debe fijar una posición previos los intercambios de información, encuentros,... que sean necesarios.

En todo caso, la Alcaldía estima que todos los Grupos Municipales deben participar en el proceso de evaluación previo a la toma de decisiones, al objeto de contrastar y compartir puntos de vista para que, decisiones de calado institucional como las de los hermanamientos, sean adoptadas con el máximo consenso, por lo

Donostia alkatea  
Alcalde de San Sebastián

Ijentea, 1 - Tel. 943481005 - Faxa 943426781 - www.donostia.eus  
20003 Donostia / San Sebastián

Senidetzei buruzko Aldi Baterako Batzorde bat sortzea.

Udalbatzaren Araudi Organikoak ondorengoa xedatzen du 148. artikuluan:

*"Aldi baterako batzordeak dira, Alkatetzak proposatuta eta Udalbatzaren erabakiz, Udal Gobernu Batzordean edo Udal Talde batean gai zehatz bat buruz eratutako Batzordeak, proposamenak edo antzekoak aztertu eta lantzeko, baina ezer ebatzi gabe."*

*Eratze akordioari lotuz arautuko dira eta, bestelakoan, Batzorde iraunkorren arauetik lotuz.*

*Automatikoki iraungiko dira sortzea eragin zuten zereginak egiten amaitzen dutenean.*

Hori bai, hiri arteko senidetzei buruzko aldi baterako Udal Batzordea Alkateak, Talde bakoitzeko Bozeramaileek eta Udalaren Idazkari Nagusiak edo haren ordezko funtzionarioak eratuko dute. Gonbidatuta, beste funtzionario batzuk bertaratu ahal izango dira, baita Batzordearen lanak errazten dituzten beste pertsona batzuk ere.

Batzordearen zeregina izango da indarrean diren senidetzak eta adierazi diren senidetza proposamen berriak ebaluatzea, baita senidetza jarduerei buruzko proposamenak egitea ere, eta beste udal erakundeei proposamenak egitea.

Bi hilabetean behin elkartuko da, eta bilkuren akta egingo du Batzordearen Idazkariak edo berak eskuordetzen duen pertsonak.

Udal Batzordearen indarraldia bi urte izango da.

Horregatik guztiagatik, Udalbatzari hau proposatzen zaio:

que propone crear una Comisión no permanente sobre Hermanamientos .

El Reglamento Orgánico de Pleno contempla en su artículo 148 lo siguiente:

*"Las Comisiones no permanentes son las Comisiones constituidas, a propuesta de la Alcaldía, de la Junta de Gobierno Local o de un Grupo municipal, por acuerdo del Pleno para un asunto concreto, con fines de estudio, elaboración de propuestas u otros de naturaleza análoga, sin carácter resolutorio."*

*Se regirán por su acuerdo de constitución y, supletoriamente, por las normas reguladoras de las Comisiones permanentes.*

*Se extinguirán automáticamente una vez hayan terminado de desarrollar las funciones que motivaron su creación."*

Pues bien, la Comisión Municipal no permanente sobre Hermanamientos estará formada por el Alcalde, los Portavoces de cada Grupo y el Secretario General del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue. Podrán asistir por invitación, otros funcionarios, así como otras personas que faciliten los trabajos de la Comisión.

Su función consistirá en evaluar los hermanamientos en vigor y las nuevas propuestas de hermanamiento que se han planteado, así como realizar propuestas relativas a las actividades de hermanamiento y elevar propuestas a otros órganos municipales.

Se reunirá con una periodicidad bimensual y se levantarán acta de las reuniones por parte del Secretario de la Comisión o persona en quien delegue.

La vigencia de la Comisión Municipal será de dos años.

Por todo ello se propone al Pleno la adopción del siguiente

Donostiako alkatea  
Alcalde de San Sebastián

Ijentea, 1 - Tel. 943481005 - Faxa 943426781 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)  
20003 Donostia / San Sebastián

## AKORDIOA

"Hiri arteko senidetzei buruzko aldi baterako Udal Batzorde bat eratzea onartzea, goian adierazitako osaera, zereginak, funtzionamendua eta indarraldia izateko."

Donostia, 2016ko irailaren 7a.

## ACUERDO

"Aprobar la constitución de la Comisión Municipal no permanente sobre Hermanamientos, con la composición, funciones, funcionamiento y vigencia antes señaladas."

En San Sebastián, a 7 de septiembre de 2016.

**Eneko Goia Laso  
DONOSTIAKO ALKATEA**